



Nerabezaroa...  
«neure» aroa

Nerabezaroa “neure” aroaren hasiera dugu, gurasoen presentziarik gabe “ni” identitate hori alor ezberdinetan garatzeko bidearen hasiera. Seme-alaben nerabezaroak guztiok mugitzen gaitu, batzuetan sorpresaz hartzen gaituelako, eta, bestetan, geure nerabezaroarekin ahaztuta gaudelako. Izan ere, ariketa ederra da garai hartara bidaiatu eta ohartzea gu ere izan gine-la nerabe.



Garai ederra da nerabezaroa, esperientzi berriz beteak: maitemintzeak, lehen erakarpen sexualak, plazer eta dantzak, lagun arteko konfidentziak, kirola, musika, mugimendu sozialak... Guk, helduok, alda dezagun nerabeen gaineko ikuspegi negatiboa, gu ere izan baitakinen nerabe eta asko ikasi genuen. Garai honetan, beraiekiko atxikimendu seguru bat sortzea eta bere bidaiaren bidelagun izatea da garrantzitsuenak.

Bidaia on, gazteak! •